

## GOBERNU BATZARRA

2016. 01. 18

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko urtarrilaren hemezortzian, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Olatz Peón Ormazabal</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Patxi Amantegi Zubiria Nerea Letamendia Belloso Jokin Azkue Arrastoa Iñigo Alonso Sarasibar</b>	
<b>Idazkaria:</b>	1.- Aurreko akta onartzea. 2.-Bertsozale elkarte. Gu ere bertsoan proiektua 2015-2016 ikasturtea. Hitzarmena.
<b>Jose Luis Unanue Ugalde</b>	3.-Tolosako N-laren Ipar Loturan Birigilbune bat eraikitzeako obren 7. eta 8. ziurtagiria (C/15244 faktura).
<b>Kontuhartzaitzako Teknikaria:</b>	4.-Etxez etxeko zerbitzua: Ilarkiren faktura.
<b>Paulino Alonso Eraso</b>	5.-Iurreamendi egoitza: abenduko kuoten likidazioa. 6.-Tolosaldea Mankomunitateari 2015eko azaroko ekarpena. 7.-2015/2115 eta 2015/2116 Alkate dekretuak berrestea. 8.-43/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

### 1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko urtarrilaren 11n egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

## **2.- Bertsozale elkartea. Gu ere bertsotan proiektua 2015-2016 ikasturtea. Hitzarmena.**

Tolosako Udalak azken urteotan dirulaguntza eman izan dio Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari, Tolosako lehen hezkuntzako hiru ikastetxeetan (Hirukide, Laskorain eta Samaniego) ahozkotasuna eta bertsolaritza proiektua aurrera eramateko egiten duen lanagatik.

Orain, Gipuzkoako Bertsozale Elkartek 2015-2016 ikasturteko memoria eta aurrekontua aurkeztu ditu.

Aztertuta aurkeztutako dokumentazioa eta aurreko urteetan emandako dirulaguntzen kopurua, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzarrak, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- 26.500 euroko laguntza ematea eta, era berean, Bertsozale Elkartearekin aurkeztutako hitzarmena sinatzea onartutako dirulaguntza bideratzeko.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari.

## **3.-Tolosako N-laren Ipar Loturan Birigilbune bat eraikitze obren 7. eta 8. ziurtagiria (C/15244 faktura).**

Bi mila eta hamahiruko azaroaren 29an, sinaturiko 2013/1658 zenbakidun alkate dekretu bidez, Construcciones Amenabar, S.A., enpresari esleitu zitzaion Tolosako N-laren Ipar loturan birigilbune bat eraikitze obren kontratua; 411.588,62€. izen zen esleipenaren zenbatekoa.

Bi mila eta hamabosteko ekainaren 15ean sinaturiko 997/2015 alkate dekretu bidez, behin betikoz onartu zen Tolosako N-laren ipar loturan birigilbune bat eraikitze obren kontratuaren likidazioa eta azken ziurtagiria; 420.803,90 €-tan (BEZ kanpo) ezarri zen obren likidazioa.

Bi mila eta hamabosteko uztailaren 27an, Construcciones Amenabar, SA., enpresak birjarpen errekurtsua jarri zion 997/2015 alkate dekretuari.

Zegozkion txostenak egin ondoren, 2015eko irailaren 8an sinaturiko 1437/2015 alkate dekretu bidez, enpresak jarritako birjarpen errekurtsua partzialki onartu zen; 427.961,09 €-tan (BEZ kanpo) ezarri zen behin betikoz obraren likidazioa.

Bi mila hamabosteko abenduaren 16an 2060/2015 alkate dekretu bidez, Construcciones Amenabar, SA, enpresari errekerimendua egin zitzaion, zegokion faktura eta hainbat informazio aurkeztu zezan.

Bi mila eta hamabosteko abenduaren 30ean, Construcciones Amenabarrek aurkeztu zuen eskatu zitzaion faktura, ez ordea eskaturiko dokumentazioa.

Orain aurkezturiko faktura obraren zazpigarren eta zortzigarren ziurtagiriei dagokie:

7. ziurtagiria..... C/ 15244.....89.165,10 €  
8. ziurtagiria..... C/ 15244..... 7.157,29 €

**GUZTIRA..... 96.322,39 €**

LIKIDAZIOA (1-8) ziurtagiriak).....427.961.09 €

Construcciones Amenabar enpresak aurkeztu duen fakturaren kopurua zertxobait bajuagoa da, baina onargarria.

Eskaturiko dokumentazioaren aurkezpena pendiente dago oraindik. Hala eta guztiz ere, obra zuzendaritzaren ongi ikusiarekin eginiko lanen ziurtagiriak izanik (kalitateari eta hondakinen kudeaketari buruzkoak) dokumentazio ezak ez luke fakturaren ordainketa gelditu behar.

Dena den, berriro eskatu beharko litzateke dokumentazioa, Construcciones Amenabar enpresa ohartaratu bermeak ez direla itzuliko tramite hauek bukatu artean.

Ziurtagiri hauek aztertuta eta kontuan izanik Udal teknikoak oniritzia eman diela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Onartzea Tolosako N-laren Ipar lotura biribilgune bat eraikitzeko zazpigarren eta zortzigarren ziurtagiria (fak zkia: C/15244); zenbatekoa, 96.052,39€ (BEZ kanpo).

**BIGARRENA**.- Ondorengo dokumentazio eskatzea Construcciones Amenabar enpresari:

- . Kalitateari dagozkion entsegu eta materialen ziurtagiriak.
- . Obren inguruan sortutako hondakinen kudeaketari buruzko dokumentazioa.

**HIRUGARRENA**.- Construcciones Amenabar enpresa ohartaraztea bigarren puntuan jasotako dokumentazioa aurkezten ez duen bitartean ez direla inolaz ere obrak egiteko jarri ziren abalak itzuliko.

**LAUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Construcciones Amenabar, S.A., enpresari eta Kontuhartailtzari.

#### **4.- Etxez etxeko zerbitzua: Ilarkiren faktura.**

Ilarki Elkargoari 2015eko abenduari dagokion etxez etxeko zerbitzuaren orduen kontzeptuan aurkeztutako 7.394,67 €.ko faktura onartu zaio, **2015/2102** Alkate dekretuaren bidez.

Hau kontuan izanik, Gobernu Batzarreko kideak berretsi egin dute, aho batez, **2015/2102** dekretua.

#### **5.- lurreamendi egoitza: abenduko kuoten likidazioa.**

lurreamendi egoitzak abenduko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **E R A B A K I D U**

**LEHENA.**- lurreamendi egoitzari ordaintzea abenduko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, **17.721,29** €-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 649,78 €

Elbarrien defizita: 17.721,29 €

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailtzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

#### **6.- Tolosaldea Mankomunitateari 2015eko azaroko ekarpena.**

Tolosaldeko Mankomunitatean 3 sistema desberdinen bidez egiten da hondakinen bilketa: atez-atekoa, landa eremukoa eta edukiontzien bitartez egiten dena. Sistema bakoitzak ingurumenarekiko eragin desberdinak ditu eta sistema bakoitzaren kostuak eta diru sarrerak (bilketa, garraioa eta tratamendua) desberdinak dira.

Horrela, udal bakoitzak egin beharreko ekarpena bi zatitan banatzen da:

\* **Gastu finkoa:** Hondakinen bilketa sistema bakoitzari dagokiona eta mankomunitatearen gastu estrukturaleri dagokiena.

\***Gastu aldakorra:** Hondakinen tratamenduari dagokiona, material birziklagarrien diru-sarrerak kontuan hartuta.

Hori guztia kontuan izanik, Tolosaldeko Mankomunitateak 2015ko azaroaren 30ean faktura aurkeztu du. Azaroko kuota dagokion gastu finkoa eta aldakorrarekin, eta aldakorraren kontzeptu barruan, dauden puntu berdea eta birziklagarrien sarrerekin.

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Onartzea Tolosaldeko Mankomunitateak aurkeztutako faktura hau:

**Fra. 2015/11/30 .....120.684,91 €**

**BIGARRENA-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailtzari, Zerbitzu arloari eta Tolosaldea Mankomunitateari.

#### **7.- 2015/2115 eta 2015/2116 Alkate dekretuak berrestea.**

2115/2015 eta 2116/2015 faktura zerrendak onartu ziren alkate dekretu bidez, 2015eko abenduaren 31n. Kopuruak: 372.357,45 eta 30.820,91 €.koak dira.

Hau kontuan izanik, Gobernu Batzarreko kideak berretsi egin dituzte, aho batez, 2015/2115 eta 2015/2116 dekretuak.

#### **9.- 43/2015 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzailtzak **43/2015** faktura zerrenda aurkeztu du; **125.705,47 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.- 43/2015** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.**

**ALKATEA**

**Olatz Peón Ormazabal**

**IDAZKARIA**

**Jose Luis Unanue Ugalde**